



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindeguia Elizalde
Miren Ilarregui Belarra
Arkaitz Mindegia Baleztena

2025eko irailaren 30an, 15:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

Bilkuran hasi aurretik, gaiordenean sartu ez den gai bat aurkeztu du Udalburuak:

Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak Berdintasun Zerbitzua sortu du, udal kide guztien artean politika publikoak modu koordinatu eta mankomunatuan garatzeko helburuarekin. Berdintasunaren arloko eskumenen delegatzioa eta malerrekako zerbitzu orokorren mankomunitatearekin hitzarmena onartzea beharrezkoa da lehenbailehen.

Udalburuak gaiaren premia aztertu du, bozkatzera deitu eta zinegotzi guztien oniritziarekin, gaia **gai ordenean sartzea erabaki da**.

BERDINTASUNAREN ARLOKO ESKUMENEN DELEGATZIOA ETA MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEAREKIN HITZARMENA ONARTZEA

2019ko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoak, 12. artikuluan xedatzen du toki entitateek euren eskumenak baliatzean berdintasunaren printzipioa txertatzeko betebeharra dutela.

1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.o) artikulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, udalei aitortzen die eskumen propioa emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketetan, bai eta genero-indarkeriaren aurkakoetan ere.

Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak Berdintasun Zerbitzua sortu du, udal kide guztien artean politika publikoak modu koordinatu eta mankomunatuan garatzeko helburuarekin.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Araudia betetzeko, baliabideak optimizatzeko eta kudeaketa tekniko egokia bermatzeko, egokitzen jotzen da Udal honek Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateari delegatzea berdintasun-zerbitzua garatzeko eta kudeatzeko eskumena, dagokion lankidetzahitzarmen interadministratiboan xedatutako baldintzetan.

ERABAKIA

- 1.- Onartzea Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateari delegatzea berdintasunaren arloko udal-eskumenak, lankidetzahitzarmen interadministratiboan aurreikusitako baldintzetan.
- 2.- Onartzea Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen eta Iturengo Udalaren arteko lankidetzahitzarmen interadministratiboa, erabaki honen eranskin gisa jasotzen dena eta beraren parte osagarria dena.
- 3.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko eta haren exekuzioa eta garapena gauzatzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak burutzeko.
- 4.- Erabaki hau jakinaraztea Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateari, onarpena eta hitzarmena sinatzea behar bezala gauzatzeko.

***** Ainhoa Bereau Altxu zinegotzia sartzen da*****

1. AURREKO BILKURETAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- 2025eko uztailaren 31eko eta irailaren 2ko aktak onartzea.

2. ESKAERAK

2.1.- Aintzane Apeztegia Eratsun andreak, "Malerreka bizirik" taldearen izenean, ABO ENERGY enpresak zonaldean 27 haize errota jartzeko proiektua duela adierazten du eta Iturengo udalak informazio berririk duen eta beste udalekin harremanetan jarri den galdetzen du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Iturengo udalak ABO ENERGY enpresarekin bilera izan eta gero, udalak abuztuaren 11n udalak herriarekin bilera informatiboa egin zuen eta geroztik ez dugu berririk.

2.- Iturengo udalak gai honekin ere lanean dago, Nafarroako Gobernuarekin, Zubietako udalarekin eta EH Bildurekin kontaktuan gaude.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

2.2. - Rafael Unchalo Odriozola jaunak 2.poligonoko 521.lurzatian dagoen haritz amerikar bat aprobetxatzeko baimen eskaera egin zuen. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Eskaera onartzea.

2.-Aprobetxamenduaren truke 13,80 euro kobratzea, basozainak egindako balorazioaren arabera.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.3.- Maria Jesus Amatriain Esain andreak Domekenea etxearen hiru leihoak eta ate bat aldatzeko baimena eskatu zuen.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Aurrekontu bat aurkeztu beharko du lizentzia emateko.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.4.- Juan Jose Ciganda Echeverria jaunak Aurtizko Sagardibehea eta Sagardia 16 zenbakiko etxebizitzaren arteko bidea irekitzeko eskaera egin zuen 2023ko apirilaren 28an. Bide publikoak ezin direla itxi jakinarazi genion T.E. jaunari. JJ Ciganda berriro egiten du eskaera bidea irekitzeko.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Bidea libre egon behar da eta balangoa giltzatu gabe.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.5.- Urtzi Oyarbide Arruabarrena jaunak, Ordobi, Teilegiko eta Lanberriko bideak garbitu dituela adierazten du eta auzolana apuntatzeko eskaera aurkeztzen du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Aipatutako kasu horretan eta bideka garbitu dituela ikusirik, hiru auzolana bezala kontuan izango da.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

3.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (66/2025- 82/2025 ebazpenak).



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

4.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

227E/2025, abuztuaren 8ko Abeltzaintza eta Nekazaritzako Zuzendari Nagusiaren ebazpenean ezartzen denez Iturengo udalak aurkeztutako eskaera ukatu aurrekontu nahiko ez dagoelako---53E//2025 Euskarabidearen ebazpena Iturengo udalari 4.539,05 euroko dirulaguntza ematen--- Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Ingurumeneko departamenturi egindako baimena eskaera; Javier Iñigo Gastearena eta luzapen eskaera eta baimena Jose Maria Iñigo Ariztegui--- Abeltzaintza zerbitzutik aldeko ebazpena (RE23288) Rafael Unchalo oiloak jartzeko--- Abeltzaintza zerbitzutik aldeko ebazpena (RE23050) M^a Teresa Agesta Vertiz orientazio zooteknikaren aldaketa--- Abeltzaintza zerbitzutik aldeko ebazpena (RE23122) Maria Ramona Eizaguirre Ochandorena oiloak jartzeko--- Abeltzaintza zerbitzutik aldeko ebazpena (RE23203) Gema Sansiñena Olaechea txerriak bajan ematen---Imanol Bazterrika herriko ehiztariak ganbaran bilera egiteko baimena eskaera---Josefa Goñi senide baten errautsak hilobian sartuko direla jakinarazten du---M^a Jose Bereau Palestinaren aldeko ibilaldia antolatzeke, ganbaran bilera egiteko baimena eskatzen du---Ittongo gazteen proposamena leku bat egoteko----- Kantauri Konfederazio Hidrografikoaren ebazpena A/31/04868 espedienteari hasiera emanaz---Jabetza Erregistroa "Obra nueva antigua" inskripzioa eginez Georgina Gailen alde---Ehiziko araudi berriari buruzko bilera deialdiaren informazioa---Rally azaroaren 11an ospatuko dela jakinarazi dute--

5.- GALDE-ESKEAK.

Ez daude galdera eskaerarik.

Eta bertzerik ezean, 17:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.